

MIKEL ZALBIDE EUSKALTZAIN OSO IZENDATU DU EUSKALTZAINDIK

Mikel Zalbide Elustondo da euskaltzain oso berria. Izan ere, apirilaren 27an, Urnietan egin den osoko bilkuran, Patxi Altuna zenaren hutsunea betetzeko bozketa egin du Euskaltzaindik. Akademiaren arauak agintzen duten legez, Zalbidek gehiengo osoa lortu du.

Jakina denez, Zalbide zen Patxi Altuna euskaltzain zenaren hutsunea betetzeko hautagai bakarra. Jose Antonio Arana Martija, Ana Toledo eta Henrike Knörr euskaltzainek aurkeztu zuten.

Mikel Zalbide

Donostian jaioa, 1951n. Nafarroako Unibertsitatean egin zituen unibertsitate-ikasketak. Industria-ingeniarria da. Egiten dituen hizkuntzak: euskara, gaztelania, alemana eta ingelesa.

Euskarak landu gabe edo landu arin zituen alorretan hasi zen lanean, gaztetan. 1972an, artean ikasle zelarik, Elhuyar elkartearen eta izen bereko aldizkari teknikoaren sortzaileetarikoa izan zen. Zientzia-tekniken alorreko ikasmaterialak prestatzen eta hitz-eraketazko azterlanak bideratzen hartu zuen parte, horrezaz gainera.

1976tik 1978ra bitartean Euskaltzaindiaren matematika-azpibatzerdearen kide izan zen.

1978tik 1981era arte, Unibertsitate Zerbitzueterako Euskal Institutuaren (UZEIren) zientzia-tekniken alorreko arduradun izan zen. Fisika, Kimika eta Matematika hiztegien prestakuntza-lanean jardun zuen, batetik. Lexiko-sorkuntzarako erabideen aztertzaile eta ikastaro-emaila izan zen, bestalde. UZEIk maileguzko hitzen idazkeraz eta ebakeraz eginiko sistematizazio-lanaren egile izana da, azkenik.

1979tik 1980ra, autonomia aurreko Eusko Kontseilu Nagusiak eta Bilboko (gero Euskal Herriko) Unibertsitateak sorturiko Planifikazio-batzorde mistoaren kide izan zen. Unibertsitate alorreko hizkuntza-normalkuntza bideratzeko azpibatzerdea sortu zen bertan: euskal kulturarekiko unibertsitate-beharrizanen lan-taldea. Lan-talde horren arduradun izan zen.

1981. urteaz geroztik Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean ari da lanean, Euskara Zerbitzuaren buru delarik. Euskarazko eta ele biko irakaskuntza finkatzeko hainbat oinegotura-lanetan dihardu. Batez ere EGA agiriaren, Hezkuntzako HE1 eta HE2 hizkuntza-eskakizunen eta IRALE, EIMA eta NOLEGA programen koordinazio-lan teknikoan. Irakasteredu elebidunen osaeraz, ebaluazio-lanaz eta bilakaeraz egindako hainbat azterketa-lanetan eta datu-bilketatan ere jarduna da. Eskola-munduaren euskalduntze-saioa, eta saio horren ikuspegi soziolinguistikoa: hori du bere lanbidearen ardatz, azken mende-laurdenean.

1983. urteaz geroztik euskaltzain urgazle da. Bi eratako langintzatan saiatu izan da bertan: Iker saileko hiztegigintza alorrean batetik, eta Jagon sailean bestetik. Batean zein bestean, bertako idazkari izana da zenbait urtez.

Euskararen Aholku Batzordearen kide izana da, 1982tik 1990ra bitartean. Bertako Batzorde iraunkorreko kide ere bai. Geroztik ere, bertako Geroratzearen Jarraipenerako Batzorde-atalean partaide izana da (1997tik 2001era bitartean).

Irakasleen eta teknikarien prestakuntza-lanean dihardu, bestalde, etenik gabe. Honako esparru hauetan, batez ere:

a) Prestakuntza linguistikoan. Alfabetatze teknikoazko hainbat ikastaro emandakoa da, batetik. Horrekin batera itzulpen-teknikei buruzko prestatze-saioak emanak ditu, zenbait urtez: IVAPeko itzultzaile-eskolan lehenik, eta EHUKo itzulpen-ikasketetan gero.

b) Prestakuntza soziolinguistikoan. Mintzajardunaren gizarte-moldaeraz, luze-zabaleko mintzaldaketaz eta hizkuntza ahulak hezkuntza bidez indarberritzeko saioen zernolako hainbat ikastaro eta prestatze-saio emandakoa da. Gradu ondoko ikasketei dagokienez, HIZNETen ikastaro-emaila da 2001-02 ikasturtetik aurrera. Horren aurretik, EHUK eta Eusko Jaurlaritzak elkarlanean eratu zuten gradu ondoko hizkuntza-plangintzako ikastaroetan ere irakasle izan zen.

c) Prestakuntza soziokulturalean. Curriculumaren euskal dimentsioa (CED) lantzen saiatu da hainbat urtez, eta horri buruzko hainbat saio praktiko eskainiak ditu.

Argitara emandako lanak:

- a) Liburuak.
- (1981) Maileguzko hitzak: idazkera eta ebakera. Donostia: UZEI.
- (1987) Hitz-elkarketa 1. LEF batzordearen lanak. Bilbo: Euskaltzaindia.
- (1990) Euskal Irakaskuntza: 10 urte. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (1992) Hitz elkartuen osaera eta idazkera: LEF batzordearen emaitzak, Euskaltzaindiaren gomendio-arauak. Bilbo: Euskaltzaindia.

b) Artikuluak eta txostenak

Azken hogeitau urteetako artikulua batzuk honako hauek dira.

(1988) Mende hasierako euskalgintza: urratsak eta hutsuneak. In *II. Euskal Mundu Biltzarra. Euskara-biltzarra*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

(1990). Euskal Eskola, Asmo Zahar Bide Berri. In *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua* (1, 211-271 or.). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

(1991). Eskola-giroko hizkuntza-erabileran eragiten duten faktoreen lehen azalpen-saioa. In *Eskola Hiztun Bila* (17-35 or.). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

(1993) Educational situation of the Basque Autonomous Community in Spain. Estrasburgo: Europako Kontseilua.

(1993) Zientzi hizkuntza irakaskuntzan: euskara teknikoaren izaeraz, iturburuaz eta egungo erabilmoduaz. Gasteiz: Eusko Ikaskuntza

(1994) Eskola-munduan erabiltzen den euskara: egungo egoera eta zenbait hobekuntza-bide , in *EUSKERA*, 1994,

(1994) Hitz elkartuen osaera eta idazkera : gomendio-arauak prestatzeko erabili diren irizpideak, in Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarra : Leioa, *EUSKERA*, 1994

(1994) “Maileguzko hitzen zenbait muga-arazo”, in Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarra : Gasteiz, *EUSKERA*, 1994

(1998) ‘Normalización lingüística y escolaridad: un informe desde la sala de máquinas’ in RIEV (Revista Internacional de los Estudios Vascos) 43, 2, 1998, 355-424.

(2000). “Irakas-sistemaren hizkuntz normalkuntza: nondik norakoaren ebaluazio-saio bat”. In *Eleria* 5, 45-61.

(2002) “Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?”, in *Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak*. Donostia: EHIK.

(2003) “Hendai-Hondarribietako biltzarrak, XX. mendeko hizkuntz plangintzaren iturburu” in *Euskaltzaleen Biltzarraren mendeurrena* / Sabino Arana Kultur Elkargoaren Jardunaldiak (2001). Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa.

(2004) “Hezkuntzaren kalitatea, elebitasunaren argitan”. In *ikastetxea, kalitatearen gune* 196-212 or. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

(2004) Hizkuntza-normalkuntzaren oinarrizko kontzeptuak, perspektiba sozioedukatiboan. In ULIBARRI proiektuaren prestakuntza-jardunaldia. Gasteiz.

(2005) Nicholas Gardner eta Mikel Zalbide “*Basque Acquisition planning*”, in *International Journal of the Sociology of Language*, 174, 55-72 or.

(2005) “A Basque perspective on the future of lesser used languages”, in CAER (Education Society of the European Regions). Cardiff.